Donostiako alkatea — El alcalde de San Sebastián

## Alkatearen BANDOA,

## koronabirusaren krisia dela eta

Donostiar agurgarri horiek:

*Donostiar guztiek eguneroko bizitzan gizalegezko erantzukizun batzuk gureganatzeko banako konpromiso bat hartzea da gure hiriak krisiak gainditzeko erakutsi duen gaitasunaren oinarria.*

Nekez imajinatuko genuen gure hiriak azken hilabeteetan gure bizitzaren ezaugarri izan den egoera biziko zuenik. Garai gogorrak izan dira, baina ez genekizkien edo ahaztuta omen genituen gauzak gogoratu eta ikasi ditugu. Osasunak zer balio duen, zoritxarrari aurre egiteko eta eusteko gaitasuna, zaintzen eta laguntzen dakien komunitate bateko kide garela sentitzea, erantzukizun indibidual eta kolektiboaren zentzua...

Merezi duten bezala baloratzeari utzitako gauza askorenganako estimua eta zentzua berreskuratu ditugu. Txalo egin diegu, balkoietan, gu zaintzen gaituztenei. Gauzak hobetzen direnean, behar duenari gure gizalegezko jokabidearekin lagunduko geniola agindu dugu, gure ohiturak eta jarduteko moduak aldatuta.

Honenbeste pentsamendu, honenbeste sentimendu izan dira egun hauetan gure bizitzaren protagonista, eta ez da erraza lerro gutxi batzuetara biltzea.

Denbora honetan, gaixotasun horren eta beste gaitz batzuen ondorioz jasan ditugun galerengatik negar egin dugu, joan zaizkigun pertsonengatik, guk nahi genuen eta behar dugun bezala azken aldiz agurtu ezin izan ditugulako. Doala ene besarkadarik zintzoena haien senide eta lagunentzat.

Azken aste hauetan, gure hiria esnatzen ari dela bizi izan dugu. Gero eta gauza gehiago egin ditzakegu, apurka-apurka galdutako askatasun alorrak berreskuratzen ari gara, eta esperantzaz begiratzen diogu etorkizunari. Une berezi honetan sentitu dut, hain suertez, nire herrikideei hitz egiteko premia larria.

Krisi honetako hilabete ilunenetan inoiz baino harroago sentitu naiz komunitate honetako kide izateaz, donostiar izateaz. Harrotasun hori izan da egoera hau Donostiak

## BANDO

## del Alcalde con motivo de

## la crisis del coronavirus

Estimadas/os donostiarras:

*La capacidad demostrada por nuestra ciudad para recuperarse de las crisis se sustenta en un compromiso individual de todos los y las donostiarras para asumir una serie de responsabilidades cívicas en nuestro nuevo día a día.*

Difícilmente habríamos imaginado que nuestra ciudad viviría la situación que ha marcado nuestra vidas durante estos últimos meses. Han sido tiempos duros, pero hemos aprendido y recordado cosas que no sabíamos o tal vez habíamos olvidado. El valor de la salud, la capacidad de hacer frente a la adversidad y resistir, el sentimiento de pertenencia a una comunidad que sabe cuidarse y ayudarse, el sentido de la responsabilidad individual y colectiva...

Hemos recuperado el aprecio y el sentido de muchas cosas que habíamos dejado de valorar como se merecen. Hemos aplaudido en los balcones a quienes cuidan de nosotros. Nos hemos prometido que cuando las cosas mejoraran ayudaríamos a quien lo necesitara con nuestro comportamiento cívico, cambiando nuestros hábitos y nuestras formas de actuar.

Han sido tantos pensamientos, tantos sentimientos los que han protagonizado nuestras vidas durante estos días que no resulta sencillo condensarlos en unas pocas líneas.

Durante este tiempo hemos sufrido pérdidas que hemos llorado como consecuencia de esta enfermedad y de otras afecciones, personas que se han marchado y a las que no hemos podido dar nuestro último adiós como hubiéramos deseado y como necesitamos. Vaya para ellas, para sus familiares y amigos, mi más sincero abrazo.

En estas últimas semanas vivimos el despertar de nuestra ciudad. Cada vez podemos hacer más cosas, recuperamos poco a poco parcelas de nuestra libertad perdida y miramos al horizonte esperanzados. Es en este particular momento cuando siento la imperiosa necesidad de dirigirme a mis conciudadanos.

Durante los meses más oscuros de esta crisis me he sentido más orgulloso que nunca de pertenecer a esta comunidad, de ser donostiarra. Un orgullo que ha sido el

12344n I

dakien moduan gainditzen laguntzeko eragilea: **elkartasuna** eta **erantzukizuna** abiaburu hartuta. Horiek dira, hain zuzen ere, hemendik aurrera gehien beharko ditugun osagaiak.

Ez da lehenengo aldia Donostiak egoera latz bati aurre egiten diona. Historian, suteak, gerrak, indarkeriaren astindua eta krisi ekonomikoa jasan ditu Donostiak. Beti izan gara aurrera egiteko gai, zailtasunak gainditu, kolpeei aurre egin eta Donostia hobe bat lortzeko. Eta gakoa beti egon da donostiarrengan. Ziur nago, zailtasunak zailtasun, oraingoan ere lortzeko gauza izango garela. Egin egingo dugu, beste batzuetan bezala, baldin eta elkartuta egoten badakigu, laguntzeko eta elkarren eskutik joateko gai bagara.

**Belaunaldien arteko itun bat**

Gero eta askatasun handiagoa dugun une honetan, inoiz baino beharrezkoago zaigu erantzukizunez eta zentzuz jarduteko gai izatea. Horren mende dago gure eta geure bizilagunen osasuna. Ez dakigu zenbat denboran biziko den birusa gurekin, ez eta pandemia horrek nolako bilakaera izango duen ere. Baina badakigu, jakin, hemendik aurrera elkar zaintzeko betebeharra dugula. Geure burua zaintzea, besteak zaindu eta babestuko baditugu. Gure esku dago erantzule izatea, arduratsu izatea, ezagutzen ditugun gomendioak errespetatzea, besteak arriskuan ez jartzeko. Ez dago hori baino elkartasun ekintza handiagorik. Ez dago kide garen komunitatearekiko konpromisoa eta hura zaintzeko borondatea baino indar handiagorik duen araurik, legerik edo zigorrik. Kalean, dendetan, autobusean, hondartzan..., unean-unean, elkar zaintzeko aukera dugu. Besteak errespetatuta eta besteon errespetatua jasota. Hala jokatzeko gai garela erakusteko aukera dugu.

**Banakako eta gizarte elkartasuna**

Hilabete gogorrak ditugu aurrean, krisi hau gaindituta, gogotik ahalegindu beharko dugu gure hiria berreraikitzeko, Donostia berriro zutik jartzeko. Eta, horretarako, inoiz baino beharrezkoagoa izango dugu konfinamendu aste gogorretan azaleratutako sentimendu eta balio horiei bizirik eustea. Gogorrak izango dira gure hiriko bizitza konfinatuta eta izoztuta egondako aldi horren ondorioak. Hala izaten ari da gurekin bizi diren pertsona askorentzat, eginkizun ikaragarri bat baitute aurrean. Guztiona den eginkizun bat, elkar hartuta aurre egin beharrekoa.

Erakundeok erantzukizun handi bat dugu: egoera aldatzeko neurriak hartzean ondo asmatzea. Gure Udalak

motor que nos ha permitido superar esta situación como Donostia sabe hacerlo: desde la **solidaridad** y la **responsabilidad**. Estos son precisamente los ingredientes que más vamos a necesitar a partir de este momento.

No es la primera vez que Donostia hace frente a una situación adversa. Donostia ha sufrido a lo largo de su historia incendios, guerras, el azote de la violencia y de la crisis económica. Siempre hemos sido capaces de superar las dificultades, reponernos de los golpes y avanzar para conseguir una Donostia mejor. Y la clave siempre ha estado en los donostiarras. Estoy convencido de que a pesar de las dificultades, también esta vez seremos capaces de hacerlo. Lo haremos, si como lo hemos hecho en otras ocasiones, sabemos permanecer unidos, si somos capaces de ayudarnos, de colaborar.

**Un pacto intergeneracional**.

En este momento en el que disfrutamos de una cada vez mayor libertad es más necesario que nunca que seamos capaces de actuar con responsabilidad y sensatez. De ello depende nuestra salud y la de nuestros convecinos. Desconocemos el tiempo durante el cual el virus convivirá con nosotros, ni la evolución que tendrá esta pandemia. Lo que sí sabemos es que a partir de ahora seguimos teniendo la obligación de cuidarnos unos a otros. Cuidarnos para cuidar y proteger a los demás. En nuestra mano está ser responsables, ser cuidadosos, respetar las recomendaciones que conocemos para impedir poner en riesgo a los demás. No hay mayor acto de solidaridad que éste. No hay norma, ley o sanción que tenga más fuerza que nuestro compromiso con la comunidad a la que pertenecemos y nuestra voluntad de cuidarla. En la calle, en las tiendas, en el autobús, en la playa... en cada momento y lugar tenemos la ocasión de cuidarnos unos a otros. Respetando y siendo respetados. Tenemos la ocasión de demostrar que somos capaces de hacerlo.

**Solidaridad individual y colectiva**

Tenemos ante nosotros meses intensos, meses en los que superada esta crisis tendremos que arrimar el hombro para reconstruir nuestra ciudad, reconstruir Donostia. Y para ello va a ser más necesario que nunca que mantengamos vivos esos sentimientos y esos valores que han aflorado durante las duras semanas de confinamiento. Las consecuencias derivadas de este periodo de confinamiento y congelación de la vida en nuestra ciudad van a ser duras. Lo están siendo ya para muchas personas que conviven con nosotros y que tienen ante sí un inmenso reto. Un reto que es de todos, y al cual debemos hacer frente unidos.

Las instituciones tenemos gran responsabilidad en acertar a la hora de tomar medidas que ayuden a revertir la

112344n1

zeregin garrantzitsua izango du egokiera horretan. Baina horrek ez du ekarri behar guk geure herritar dimentsioari saihets egitea. Inoiz baino erabakigarriagoa izango da herritar moduan zer egin ahal dugun edo zer ezin dugun egin. Orain, inoiz baino beharrezkoagoa da geure buruari hau galdetzea: Zer egingo dut, hemendik aurrera, guztion onerako? Zertan lagundu diezaioket Donostiari egoera honetatik suspertzen eta hiri hobe bat izaten? Galdera honi emango diogun erantzunaren bidez altxatuko da Donostia, bai eta aurrera jarraituko ere.

situación. Nuestro Ayuntamiento deberá jugar un importante papel en este contexto. Pero eso no debe hacer que eludamos nuestra dimensión de ciudadanos. Lo que seamos capaces de hacer o de no hacer como ciudananos será más determinante que nunca. Ahora más que nunca es absolutamente necesario que nos hagamos la siguiente pregunta: ¿Qué voy a hacer de ahora en adelante por el bien común? ¿En qué puedo ayudar para que Donostia se reponga de esta situación y pueda ser una Ciudad mejor? Será la respuesta que demos a esta pregunta la que haga posible que Donostia se levante y siga avanzando.

Horregatik guztiagatik, eta etapa etapa honek gure normaltasuna ahalik eta azkarren berreskuratzeko aukera eman diezagun, **dei bat eta gonbit bat** egiten dizkizuet:

- Agintari zibilek osasun, higiene eta gizarte arloan ematen dituzten gomendio guztiak kontuan izatea eta betetzea.
- Gizalegezko jarrera arduratsu bati eustea, gizarte bizitzaren arlo guztiak oinarrizko segurtasun bermeekin garatu

Por todo ello, y de cara a que esta nueva etapa permita recobrar lo antes posible nuestra normalidad, **os conmino e invito a**:

- Atender y cumplir todas las recomendaciones sanitarias, de higiene y sociales que las autoridades civiles están trasladando.
- Mantener una actitud cívica y responsable, que permita que todos aquellos órdenes de la vida social puedan desarrollarse con las elementales garantías de seguridad.

**Bakoitzaren erantzukizuna**

Eskatzen dizuedan erantzuna gutako bakoitzak honako hauek egiteko konpromiso bat baino ez da: gure kaleak bizitzaz betetzea; gure hiria ezagutu eta bete-betean gozatzea; gure saltoki, merkatu eta enpresetan erostea; gure auzotar eta adinekoak zaintzea; gutxiago kutsatzea, eta, denon artean, Donostia hobe bat eraikitzen jarraitzeko laguntza. Gure bizitokia, gure etxea, gure hiria izateagatik zaindu nahi dugun Donostia bat.

**Responsabilidad de cada uno**

La respuesta que os pido no es otra que la del compromiso de cada uno de nosotros para llenar de vida nuestras calles, conocer y disfrutar en plenitud de nuestra ciudad, comprar en nuestros comercios, mercados y empresas, mirar por nuestros vecinos y mayores, contaminar menos y ayudar a que entre todos podamos seguir construyendo una Donostia mejor. Una Donostia que queremos cuidar como lo que es: nuestro hogar, nuestra casa, nuestra ciudad.

Eneko Goia Laso
ALKATEA

I12344n I